

KMKOB



Eguraldi eguzkitsua egin zuen goizeko 11etatik aurrera. [DAVID APREA]



Zenbait tokitan jende asko bildu zen. [D. APREA]

# Festa gogoangarria

Jende-uholde batek Oiartzun osoa hartu zuen atzo eta giro ederrean ospatu zen Kilometroen jaia

Bisitari gehienek garraio publikoa erabili zuten eta ez zen pilaketarik gertatu, ezta aparkalekuetan ere

FELIX IBARGUTXI

OIARTZUN. DV. Jende-uholde batek bete egin zuen atzo Oiartzungo Kilometroetako ibilbidea. Antolatzaileek ez zuten kopururik eman, baina baliteke hauxe izatea jendetsuenetakoa, biztanle asko dituzten herriak dituelako aldamenean Oiartzunek, eta oso eguraldi ona egin zuelako. Gainera, ez zen aparteko arazorik gertatu errepideetan, jende gehienak garraio bide publikoak erabili zituelako.

1992an ez bezala, atzo zortea izan zuten oiartzuarrek eguraldi aldetik. «Aurreikuspen guztiak gaititu ditu gaurko Kilometroen jaia. Sekulako jende uholdea izan da. Duela 14 urte meteorologiak eman ez zion guztia eman dio aurtentzako Haurtzaro ikastolari», adierazi zuten atzo antolatzaileek beren balorazio ofizialean. Eta jaia prestatzen jardundakoak oso pozik agertu ziren baita ere garraio gorabeherak aztertzean:

«Jendearen etorrera, jende asko izanagatik, ordenatua izan da eta ez da aparteko itomenik sortu errepideetan. Aparkalekuetan ere, lekua sobera izan da. Ugaldetxo bete egin da, eta baita Mamut-ekoa eta Talaia industrialdekoa ere. Carrefourreko parkina erdizka baino ez da bete eta Lanbarren kasik hutsik gelditu da».

Bestalde, antolatzaileek adierazi zuten «espero baino janari eta edari gehiago» kontsumitu zela, beharbada eguraldiagatik. Ur-botilak, adibidez, eguerdiko 12:00etan bukatu egin ziren zenbait gunetan.

Egitarran aldaketa bat bakarra egin zen. Ugaldetxoko gunean The Solanos kontzertu bat ematekoa zen 13:00etan, baina bertan behera gelditu zen, taldeko batera-joleak itsripua izan duelako. Haren ordez The Huskeys taldea jardun zen.

Goizeko 9:30etan ekin zitzaion hasiera-ekitaldiari. Oiartzuar asko bildu ziren ikastolako jolas-

tokira hura ikustera. Hasteko, Ainara Artolak, jaiaren koordinatzaileak, hitz egin zuen, eta gogorarazi hau 30. edizioa izan dela. Ondoren, Arantza Manterola, ikastolako lehendakaria, mintzatu zen. «Aipamen berezia egin nahi diet boluntario guztiei esan zuten. Ikastolak herri proiektua dira eta oraindik ere musutrukeko lanaren beharra dute». Eta gero ekonomiaz jardun zen: «Beste ikastola batzuekin alderatuta, gure egoera ez da txarrenetakoa, baina kontzertaziotik datorren dirua ez da nahikoa. Espazio falta nabarmena daukagu eta erai-kin berria behar dugu. Horretarako lur-eremua behar da, eta Udalarari esana diogu».

Gero, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren izenean, Juan Jose Agirrezabala jardun zen. «Gaurko egoeran dugun lanik handiena ez da euskara etxetik eta herritik eskolara eramatea. Alderantzizkoa da dugun erronka: ikastolatik eta eskolatik gizar-